

IL AZALPEN PROBA • 612 euro	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua **–zure IL lanean bezala–**: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: **300-400** hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta margenak utzita.
 5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua:

Segundo batzuen ondoren atsoak begirada jaso eta so egin zidan.

—Ezin zenuen letra handiagoa erabili? "Toure detektibea" baino ez dut ikusten —protestatu zuen, baina, zalantza labur baten ondoren, azkenik katea askatu eta sartzen gonbidatu ninduen.

—Auzo honetan —erantsi zuen— ezin zara inorekin fidatu eta beltz guztiak oso antzekoak zarete.

Kostatzen zait zuri adina kalkulatzeko, baina atso desatsegin hura hirurogeita hamar urteren bueltan ibiliko zela pentsatu nuen. Berehala ohartu nintzen zein zen haren ahoskera arraroaren arrazoia: hortz-hagin falta.

—Gure atarian —jarraitu zuen— ia denei sartu zaizkie inoiz pisuan lapurrak. Denei bosgarreneko patera-pisuko beltzei izan ezik, noski.

—Afrikar beltzak nekez aurkituko dituzu horrelako zereginetan.

—Zeuk diozu hori.

IL AZALPEN PROBA • 612 euro	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia	/ 2,5
Moldea	/ 2,5
Zuzentas.	/ 5
GUZTIRA	/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**zure IL lanean bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: **300-400** hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta margenak utzita.
 5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua:

—Zuk ez dakizu zer den hori, noski, baina makina modernoak ailegatu aurretik, meatzariak euren egin behar zituzten zuloak harrietan dinamita-kartutxoak sartzeko eta, euren besoen indarrak gain, laztabin zorrotzak erabiltzen ziren zeregin horretan –senarrak esku artean zeukan burdin barra seinalatu zuen—. Oso estimatuak ziren harri-zulatzailerak eta Julian zen denetan onena. "Idia" esaten zioten, hain zen indartsua, eta mila apustu irabazi zituen, lanetik kanpo egiten ziren lehiaketetan. Bizkaiko beste meategietatik etarritako inork ezin izan zion irabazi. Baina –atsekabe keinua egin zuen–, gu barik beste batzuk aprobetxatu ziren Julianen indarrak: bere ugazabak. Haienezako lanean osasuna galarazi zioten, apustuetan sekulako dirutzak irabazi zituzten hari esker, baina gero, meategiak itxi eta lur-sailak saldu zituztenean, ez zen inor beretaz gogoratu. Aberaskume haiek euren luxuzko etxeetara joan ziren eta gu zulo honetan geratu ginen betiko.

Ez zitzaidan hain eskasa iruditzen atsoaren etxebizitza. Gurea baino txukunagoa bazen, behintzat.

IL AZALPEN PROBA • 612 euro	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua **–zure IL lanean bezala–**: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: **300-400** hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta margenak utzita.
 5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua:

—Ea, Garan –probatu nuen berriro—. Lehen esan didazu atzo aitarekin jolasean ibili zinela.

—Bai, egun osoan –martxa sinesgaitzean irensten zituen makarroiak—. Eta gauean ere bai.

—Ederto. Azalduko didazu zelako jolasak izan ziren?

Jarraian etorri zen azalpenak ahozabalik utzi ninduen, jaten jarraitzeko gogoia kenduta. Izan ere, ezin nuen sinetsi nire belarriek entzuten zutena. Egunean zehar bidaia batzuk egin omen zituzten aita-seeek elkarrekin autobusez. Edo, hobeto esanda, elkarrekin ez, batak busaren barruan jesarrita eta besteak maletatzairean sarturik. Bidaian zehar umea ezkutalekutik irten, inguruko ekipajeetatik baliozkoak izan zitezkeen ahalik eta gauza gehien harrapatu eta, berriro maletan sartuta, bidaia amaitu eta aitak handik atera arte itxaroten zuen. Horrela ibili omen ziren bezperan egunean zehar, horrela etorri omen ziren Paristik Bilboraino, eta horrela ibiltzen omen ziren sarri Paris inguruan ere. Goizean egunkarian irakurritako berriaz gogoratu nintzen eta bat-bateko gogoia sentitu nuen nire ustezko anaia harrapatu eta sekulako jipoia emateko.

—Osaba Mamou.

Orduko hartan neu nintzen deskonektatuta zegoena, istorio hark zenbateraino zipriztindu ahal ninduen mamurtuz.

IL AZALPEN PROBA • 612 euro	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia	/ 2,5
Moldea	/ 2,5
Zuzentas.	/ 5
GUZTIRA	/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua **–zure IL lanean bezala–**: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: **300-400** hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta margenak utzita.
 5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua:

—Zure senidea zen benetan?

—Ez dut uste.

—Eta merezi dizu haren hilketaz ikertzen hasteak?

Egin diotena izugarria da eta bistan da jende oso arriskutsua dagoela tartean. Zer probetxu atera dezakezu hortik?

Arrazoi guztia zeukan apaizak eta erantzun logikorik gabe geratu nintzen. Gero eta deserosoago nengoen elkarrizketa harekin, txarto sentiarazten zidan hainbestetan lagundu zidan pertsona zintzo hari erdi gezurretan ibiltzeak eta gaia aldatzea erabaki nuen:

—Alfredo **–esan nion–**, ondo pentsatuko dut zer egin gai horrekin, baina beste kontu bat ere aipatu nahi nizun.

Beharbada, lagundu ahal didazu.

—Bota.

—Umea. Ez dakit zer egin berarekin.

—Zuk zer nahi zenuke?

—Oraingoz oso nahastuta nago, ez daukat batere argi.

—Berarekin geratzea pasatu zaizu burutik?

—Burutik pasatu bai.

IL AZALPEN PROBA • 612 euro	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**zure IL lanean bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: **300-400** hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta marginak utzita.
 5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua:

Alferrik. Balkoira irten nintzen, baina han ezin zen halako gauza konprometiturik egon, ezkutatu bitartean auzokideren batek zerbait ikusteko arriskua egongo baitzen. Sukaldea ere goitik behera arakatu nuen; pisukideen geletan sartu eta bazterrak miazteko lizentzia hartu nuen... Alferrik, beti ere. Ondo pentsatuta, logikoena zera zen: ezer egotekotan, neure gelan egotea, eta hantxe sartu nintzen berriro. Begiradaz aztertu nituen lehenik txoko posible guztiak. Armairu eta tiraderetan ez nuen ezer aurkitu, pertsianaren kutxan ere ez...

Cisseren buruan sartzan saiatu nintzen eta ideia bat otu zitzaidan: telebista, hantxe egon behar zuen bila nenbilenak. Haren atzealde zabala aztertu nuen, torloju batzuk topatu nituen eta, lanparak miazterakoan bezala aizto kamuts baten puntaz nola edo hala moldatuz, aparatua irekitzea lortu nuen. Beste porrot bat. Orduan umeak zizpuru egin zuen eta berriro haren aurpegi bareari begira geratu nintzen. "Lagundu", pentsatu nuen "emadazu ideiarene bat". Etxeko koltxoi eta kuxinak ez neuzkan aztertuta, flmetan inoiz ez baitzuten ezer aurkitzen horien barruan, nahiz eta aiztoekin goitik behera urratu.

IL AZALPEN PROBA • 612 euro	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia	/ 2,5
Moldea	/ 2,5
Zuzentas.	/ 5
GUZTIRA	/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua **–zure IL lanean bezala–**: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: **300-400** hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta marginak utzita.
 5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua:

—Oraingoz hobe da bakoitzak bere etxean jarraitzea —berrekin zion—, baina dena ondo badoa luze barik egingo ditugu planak nirera etortzeko — Enarek esaten zuen gauza bakoitzak aurrekoek baino are txundituago uzten ninduen—. Horrela, auzo miserable horretatik ihes egin eta askoz hobeto biziko zara.

"Beste misiolari bat"? pentsatu nuen, kezkatzen hasita. Etxera nire gorputzak edo, agian, detektibea izatearen morboak erakarrita eraman ninduelakoan nengoen, baina bazirudien oker nenbilela. Edonola ere, neska kemenez hustuta zegoen eta handik gutxira, zizpuru txiki bat egin ondoren, isildu eta lo geratu zen.

Hausnarketan eman nuen tarte luzetxo bat, zirkinik egin gabe eta, ondorio batera ailegatzen ari nintzenean, berriz jo zuen nire sakelakoak. Presaka egin nuen salto ohetik eta telefonoari Enare esnatu aurretik oratzeko gauza izan nintzen. Ez nuen pantailako izena edo zenbakia begiratzeko astirik hartu, baina botoi berdea sakatutakoan berehala ezagutu nuen beste aldeko ahotsa:

—Zer moduz, Toure? —Amaia zen, Ledesmarko tabernaria.

—Ondo —ezin nuen sinetsi gau hartan gertatzen ari zitzaidana.